



BADALAB HIZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PARTZUERGOA

Bekak ematea, euskaratik eta euskaraz ere bizi den hiztun komunitatearen etorkizuneko ikuspegi desiragarriak eraikitzeko lan ildoaren baitan, "Etorkisuneku sormen bekak" 2023ko deialdiari dagozkionak.

Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren Batzorde Betearazleak, 2023ko urriaren 18an eginiko bileran, ondoko erabakia hartu du:

2023ko uztailaren 21eko Gobernu Batzordeak hartutako erabaki bidez onartu ziren "Etorkisuneku sormen bekak" emateko oinarri arautzaileak eta 2023ko deialdia. Halaber, 6.000 euroko gastua baimendu zen deialdi horretarako, 1 480.02.03 2023 aurrekontu sailaren kargura. Erabaki horren xehetasun guztiak irailaren 12an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Badalabeko webgunean.

Oinarri arautzailetan ezartzen denez, laguntza hauek norgehiagoka jardunbideaz eman dira, eta Badalaben Idazkaritzaren eginkizuna izan da dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzioa. Era berean, kontuan hartuta laguntzak jaso ahal izateko baldintzak eta betebeharrak, baita horiek baloratzeko ezarritako irizpideak ere, 6. oinarrian aurreikusitako Hautaketa Batzorde Mistoak deialdiaren esleipen proposamena prestatu du, eta Batzorde Betearazleari helarazi dio.

Izan ere, 8. oinarri arautzailean ezarritakoarekin bat etorriz, Batzorde Betearazle honi dagokio deialdia erabakitzeko eskumena. Bestalde, oinarri horretan bertan ezartzen da deialdiaren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaiela interesdunei eta, gainera, Badalab-en webgunean ere argitaratuko dela.

Horrenbestez, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Batzorde Betearazleak, presidenteak hala proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

EBATZI DU

Lehenengo.- Ematea jarraian adierazten diren bekak, euskaratik eta euskaraz ere bizi den hiztun komunitatearen etorkizuneko ikuspegi desiragarriak eraikitzeko lan ildoaren baitan, "Etorkisuneku sormen bekak" 2023. urteko deialdiari dagozkionak. Horretarako, zerrendan azaltzen diren onuradunen alde 6.000 euro xedatuko dira, zehazten diren zenbateko partzialengatik eta aurrekontuko kontu-sail honen kargura:

Onuraduna	Proiektua	Puntuak	Emandako beka	Kontu-saila
Jon Sánchez Carrasco	Katal_InA	86,70	1.500€	1 480.02.03 2023
Nora Goyalde Aguirre	Zozo	64,30	1.500€	1 480.02.03 2023
Amaia Bono Jiménez	"Belarriprest 2. Atala Izen behin behinekoa"	60,70	1.500€	1 480.02.03 2023
Iraitz Mateo Gogorza	Kapsulak	59,70	1.500€	1 480.02.03 2023



Bigarren.- Osatzea jarraian azaltzen den ordezkoen zerrenda, aurreko taulan jasotako onuradunen batek uko edo atzera egingo balu, dagokion hurrenkeran osatzeko hutsune hori:

Eskatzailea	Proiektua	Puntuak
Naiara De La Puente Vadillo	Etorkizuneko euskara: interpretazio artistikoa	59
Parean berdintasun elkarte	Bertsotan eta kantuan euskaratik mundura eta buelta	51
Asociación Estudiantil Junior	Trantsiziorako arnaguneak	48,70
Ander Muñoz Ventura	ZERO Argitaletxea	44,70
Nahia Sillero Martinez	Etkez etxe	40,30

Hirugarren.- Baztertzea jarraian azaltzen den proposamena, oinarrien 7.3 atalak xedatzen duenari jarraikiz, gutxienez 40 puntu lortu ez dituelako.

Eskatzailea	Proiektua	Puntuak
Mikel Erkiaga Herrán	Pareta eta pintura, intersekzio modura	21

Laugarren.- Baloratu gabe uztea jarraian azaltzen diren proposamenak, deialdiak eta oinarri arautzaileak xedatzen dutenarekin bat ez datozelako.

Eskatzailea	Proiektua
Bideografik ekoizpenak SLL	Xiruliruli
Marta Berganzo	-

Ebazpen hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek ebazpen honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko Batzorde Betearazle honi, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeoaren berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Donostia, 2023ko urriaren 18a.- Iker Nocedal Bustamante, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren idazkaria.